



musikene

SARRERA PROBAK - PRUEBAS DE ACCESO
Eredua – Modelo

C1: IRUZKIN ANALITIKOA / COMENTARIO ANALÍTICO

Erreferentziatzko galdesorta/gida honako obra hau partiturarik gabe aztertzeko:

Meza Si minorrean. “Crucifixus” J. S. Bach

- 1- Zer konpas mota darabil Bach-ek obra honetan?
- 2- Deskribatu piezaren plan tonala (hasierako-amaierako tonalitateak, garrantzizko modulazioak, horrelakorik badago)
- 3- Zer eginkizun dauka ostinatoak obra honetan? Non kokatzen da? Zein da ostinatoaren luzera? Ostinatoa darabilen musika modu barrokorik ezagutzen al duzu?
- 4- Zein da baxu jarraituaren eginkizuna obraren barruan? Zer instrumentuk egiten dute normalean?
- 5- Zer instrumentu edo instrumentu multzo bereizten dituzu orkestran?
- 6- Deskribatu koruko ahotsen testura melodikoak.
- 7- Testuaren esanahia ezagutzen al duzu? Nolakoa da testuaren tratamendua obran zehar (silabikoa, melismatikoa, mistoa)? Nolako musika- eta konposizio-baliabideak darabiltza Bach-ek Crucifixus baterako nortasun egokia definitzeko?
- 8- Zein da azken kadentziaren berezitasuna? Zure ustez, zein izan daiteke arrazoia?
- 9- Eskema bat erabiliz, deskribatu obraren barne-egitura, atal bakoitzean egiturazko osagai nagusiak idatziz: esaldiak, kadentziak, beste batzuk.
- 10- Bach-en genero eta estilo bereko obraren bat edo garai bereko beste konpositore baten obraren bat ezagutzen al duzu? Aipatu egileak eta dagozkien obrak.